


Gaztefilm



Vital Fundazioa Kulturunea

A Aretoa

Urtero abenduan

Gazte eta umeentzako zinema jaialdia

Nork ezagutzen ditu haurrak hurrek berek baino hobeto? Jaialdi honekin talde-esperientzia hezigarri bat abiarazi nahi da, non haurrak izango baitira, praktikaren bidez, proiektuaren eragileak.

Informazioa

Gazte eta umeentzako zinema jaialdia-ren proiektioak beregan hartzen du Gasteizek urtero abenduan. Jaialdi hau bereizten duena, zirkuitu komertzialetik aldentzen den gazte eta umei zuzendutako ikus-entzunezko obrak erakustearen grina da.

Aukeraketa irizpideak filmen kalitatea, ekliktizismo tekniko eta estilistikoa (animazioa, dokumentala, fikzioa) eta gai aniztasuna izango dira. Gainera, elkartasuna, herrien arteko adiskidetasuna, giza eskubideen arazoak, biolentzia eta migrazioa, gaur egun pil-pilean dauden gaiak izanda, garrantzia berezia dute guretzat.

Jaialdi honen produkzioa, umeei egindako lantegietan oinarritzen da eta proiektuaren fase ezberdinetan garatzen joango da: filmen aurre-aukeraketa, aukeraketa eta programen komisariotza, komunikazio eta diseinu grafikoa, eta baita programa finalen aurkeztea

jaialdiaren publikoari. Horretarako, estu lan egingo da eskolekin, bai lehen zein bigarren hezkuntzak, ikasleen parte-hartze aktiboa lortzeko.

Vital Fundazioak, Zinhezba eta **KalakaLab**kultura elkarteekin batera, jarduera berritzailea antolatzen du, ume eta gazteentzat. Gaztefilm Fest-ek 18 urtetik beherakoentzako zinema-gunea sortzea du helburu, areto komertzialek eskaini dezaketena ez bezalakoa, beste mota bateko filmak eskaini ahal izateko, eurentzat pentsatuak eta sortuak eta entretenitzeko ez ezik bestelako helburuetarako ere direnak.

Informazio gehiago [gaztefilmfest](#)